

**Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kudeaketa Planaren balantzea  
eta etorkizuneko proposamena  
Markel Olano Arrese  
Gipuzkoako diputatu nagusia  
Kursaal  
2011ko otsailak 16**

Arratsalde on eta mila esker gaurko ekitaldi honetara etortzeagatik. Arratsalde on baita ere, ekitaldia zuzenean internet bidez jarraitzen ari zareten guztioi.

Orain dela lau urte, 2007/2011 Kudeaketako Plan Estrategikoa aurkeztu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiko gobernu taldeak, lehenik Batzar Nagusietan, eta, gero, Gipuzkoako gizartearen aurrean, Kursaaleko areto honetan. Kudeaketa plan horretan zehaztu genituen, argi eta garbi, gure gobernu taldearen helburuak.

Agintaldi honetan egindakoa aztertzen hasi aurretik, nire lehen hitzak esan nahi ditut eskerrak emanez Gipuzkoako gizarteak eman digun konfiantzagatik, eta gizartearen zerbitzura lan egiteko eman digun aukeragatik.

Ohore handi bat, ikaragarritzko ohorea izan da Gipuzkoaren alde lan egitea, gure lurraldea osatzen duten guztien alde lan egitea. Ongi egindakoak eta akatsak izango genituen, noski, baina gure onena eman dugu lanean.

Eskerrak eman nahi dizkiet, baita ere, gizarte erakundeei, kirol taldeei, kultur elkargoei, antolakunde ekonomiko eta politikoei, Gipuzkoak eratzen duen proiektuaren alde egiten duten lanagatik. Guztiz sinetsirik nago gizartearen eta erakundeen arteko lankidetzaren estua dela gure etorkizuna eraikitzeko eragile nagusia.

Azkenik, eskerrak eman nahi dizkiot Foru Aldundian lanean aritu den talde politiko nahiz teknikoari. Haien lanik gabe, ezin izango genuen aurrera egin.

Lau urte hauetan zehar, guztion artean partekatu ditugu eztabaidak, itxaropenak, proiektuak, kritikak, kezak, baita pozak ere. Mila esker handi bana, zuei.

Agintaldia hasi genuen kultura politiko berri batez hitz eginez: lidergo partekatuaz, eragile publiko eta pribatuen arteko elkarlanaz, eta herritarren partaidetzaz.

Hiru zutabe horien bizkarrezurraren gainean eraiki nahi izan dugu foru erakundearen politika publikoen kudeaketa. Kultura politiko berria ez da publizitaterako lelo huts bat izan. Gure agintaldiaren benetako eragilea izan da.

Lidergo partekatua sustatu dugu herri erakundeen artean, batik bat gure lurraldeko udalen artean. Askotan, gure desadostasun politikoak alde batera uzten jakin izan dugu, herritarren kezka diren gaietan indar guztia jartzeko.

Jauregi honetan bertan Donostiako Udalarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmena, alde batetik, eta hainbat eta hainbat gairen inguruko lankidetzaren bestetik, izan dira lidergo partekatuaren adibide adierazgarrienak. Lanean jarraitu behar dugu norabide horretan.

GIPUZKOA AURRERA izan da kultura politiko berri honen ardatz nagusietako bat. Donostiako Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kutxak, Adegik, Merkataritza Ganberak eta Mondragon taldeak beren indarrak bildu dituzte lurraldeko erronka estrategiko nagusiak bultzatzeko.

Diagnostikoak eta konponbideak partekatu ditugu eta proiektu garrantzitsuak jarri ditugu mahai gainean. Eragile publikoek eta pribatuek, batera, lurraldearen gobernantza eskema handitu eta sakonki aztertu dute, helburu partekatu bakar batekin: Gipuzkoaren lehiakortasuna.

Eta eredu horrek ez du atzerabiderik. GIPUZKOA AURRERA ez da erakunde batena ez besterena, eta ez du inongo alderdi politikoren ezaugarriarik. ADNan lankidetzaren hitza daraman lurralde baten ondarea da.

GIPUZKOA AURRERA osatzen duten entitateei beraien leialtasuna, lan gaitasuna eta ekarpen bikaina eskertu nahi dizkiet, beren interes legitimoak alde batera utzita, proiektu partekatu baten alde lan egin dutelako.

Legealdi osoan herritarren partaidetza ere bultzatu dugu. Foru Aldundian nahiz udaletan, partaidetza proiektuak garatu dira. Herritarren partaidetza sustatzeko onartu dugun Foru Arau berriak aukera emango digu, etorkizunean, lan eskema honetan sakontzeko.

Herritarrak ez badira gobernantza sistema baten partaide sentitzen, arazo larri bat daukagu ikuspegi demokratikotik begiratuta. Herritarrek gero eta urrunago sentitzen dute politika eta hori da, gaur egun, demokrazia aurreratuen arazo nagusietako bat.

Bide gogor eta zail bati ekin diogu, baina ez dugu atzerabiderik.

Azken lau urteetan, kultura politiko berriaren aterkiaren azpian, hiru ekimen garatu ditugu, eta labur-labur adierazi nahi ditut, gobernatza modu berri baten aldeko apustuaren adierazle onak direlako:

Lehenik, herritarrekin zuzenean komunikatzeko prozesuak garatu ditugu. FORU ALDUNDIA ZURE HERRIAN edo GIPUZKOA ERAIKITZEN programen eraginez, ariketa demokratiko trinko bat egin behar izan dugu, aurrez entrenamendu handirik ez bagenuen ere. Aitortzen dut ahalegin handi bat egin behar izan dugula, baina osasungarria izan da guretzat herritarren aurrean biluztea, gure proiektuak azaltzea, eta zuzeneko harreman bat izatea, kritikak eta ekarpenak jasotzeko, inolako bitartekotzarik gabe.

Bigarrenik, politika gazteengana hurbiltzeko lan ausarta egin dugu. Azterlan batzuen bitartez, agintaldian zehar haien ondoan egon gara. Bilerak egin ditugu, entzun egin diegu —batzuetan, entzun nahi ez genituzkeen gauzak—, eta ikasi egin dugu haiengandik, zuzenean, paternalismorik gabe, elkar errespetatuz.

Eta, hirugarrenik, uste dut nabarmendu beharra dagoela kultura politikoaren aldeko jarrera dela, funtsean, balioen eta kulturaren aldeko jokabide bat. Gure gizartearen eginkizun funtsezkoena ez dago azpiegituretan edo zerbitzuetan: baita ere, modu berezi batean, gure jokabidea baldintzatzen duten balioetan dago.

Zerbait esan nahi nuke Foru Aldundiaren politika publikoen kudeaketari buruz, baita lurraldearen erronka estrategikoak planteatzeko erabili den testuinguruari buruz ere.

Uste dut oso garrantzizkoa dela Gipuzkoaren ikuspen oso bat izatea, azterketaren oinarriak ongi finkatzeko. Askok amestuko luketen oinarritik abiatzen gara. Arretaz begiratzen duten guztien aurrean, Gipuzkoa lurralde orekatu bat da, ekonomiaren aldetik lehiakorra, eta ongizate maila handikoa.

Hala eta guztiz ere, duela lau urte, Gipuzkoan atasko moduko bat gailentzen ari zen, zatiketa politikoak eragindako paralisi moduko bat.

Iruditzen zitzaigun mundu politikoak paralisia sortzen zuela, nahiz eta lurralde ekintzaile eta dinamiko bat eduki. Gaur, aldiz, esan genezake Gipuzkoan elkarlanak aurrea hartu diola liskar antzuari, eta gauzak aurrera doazela.

Gainbegiratze azkar bat eginda, hitz egin dezakegu, adibidez, errepideen inguruan izandako benetako iraultzari buruz, horren barruan Donostiako 2. ingurabideak, AP-1 autobideak eta Urumeako autobideak, besteak beste, osatzen duten Gipuzkoako biribilgunea baitago.

Erakundeen arteko lankidetzari esker, portuko pabilioi zaharrak bota eta Masterplana eginda, Pasaialdeko ingurune urbanoa biziberritzeko prozesua abian jarri dela esan dezakegu.

Lurraldebus txartelak izandako harrera ezin hobearen eraginez, garraio publikoaren erabilerak gora egin du zalantzarik gabe. Orain, bitartekoak jarri ditugu txartel bakar horretara bil daitezzen Renfe-ren eta Euskotren-en aldirietako trenak.

Beste aldaketa sakon bat eragin dugu hiri hondakinen trataeran: San Markoseko zabortegia itxi dugu, eta gainerako zabortegiak ere itxiko ditugu unea iristen denean; izan ere, erreziklajearen aldeko hautu garbia egin dugunez, tratamendu zikloa behar bezala itxiko duen azken belaunaldiko erraustegia eraikitzeke lehen urratsa egin dugu, Europaren finantzaketak lagunduta.

Agintaldia hasi orduko, gonbidatu gabeko mahaikide bat topatu genuen, ordea: mundu mailako krisi ekonomiko larri bat, uste baino gogorragoa, gainera.

Krisiari ausardiaz eta adorez erantzun diogu. Lehenik, gure erakundearen jardunari dagozkion gaietan, soiltasun eta lehenitasun politika zorrotz bat hedatu dugu, besteak beste, azken urteetako aurrekontuetan egokitzapen estuak eginez.

Bigarrenik, krisiari aurre egin diogu, gure indarren neurrian, krisiaren aurkako planaren bidez, enpresei laguntza bizkor eta eraginkorrek emanda; eta esan beharra dago ekimen horrek lurraldeko enpresen aldetik harrera bikainari buruz izan duela.

Hirugarrenik, sakontasun handieneko ekimena dago: egoera zail honetan, gure lurraldearen lehiakortasunaren alde egin dugu, gure enpresetan berrikuntza sustatzeko politika berriak ezarriz.

Eta, beste esparru batera joanda, aipatu dezakegu, adibidez, lurraldearen oreka, eta nola garatu dugun LandaGipuzkoa 32 inbertsio programa garrantzitsua, Gipuzkoan mila biztanle baino gutxiago dituzten udalerriei zuzendutakoa.

Halaber, Tabakalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroari buruz hitz egin nahi nuke; izan ere, erakundeen artean lortutako akordioaren ondoren, eraikina berritzeko obrak hasiko dira, eta, aldi berean, ikus-entzunezko esparruan proiektu kulturala garatzen hasia da Artelekun.

Ez nuke baztertu nahi gizarte politika. Aldundia ahalegin handia egiten ari da gizarte zerbitzuen sarea finantzatzeko eta, horrela, Gipuzkoako biztanleek sistema publikora sartzeko duten eskubidea bermatzeko, betiere, berdintasun, unibertsaltasun eta duintasun baldintza guztiak errespetatuta. Legealdi honetan % 41 igo dugu gizarte politikarako aurrekontua.

Kirolak, bere maila guztietan, bai afizionatuen mailan, bai profesionalen mailan, erakusten du herri baten garapen maila. Kirol ekipamenduen barruan, agintaldi honetan inbertsio handiak egin dira kirol ekipamenduak sortzeko, bai udalen bitartez, bai Gipuzkoako beste kirol eragile batzuen bitartez.

Administrazioa modernizatzeko egiten ari garen lana, edo Gipuzkoako Bulego Estrategikoak G-20 prozesuaren bitartez eman digun ikuspen estrategikoa, mugarri sendoak izan dira, etorkizunari begira eta etengabeko aldakuntza egoera batean lan egin behar duen administrazioarentzat.

Azkenik, gogora ekarri nahi nuke Foru Aldundiaren helburu nagusietako bat dela zerga iruzurraren aurka borrokatzea. Gure estrategiak bi ardatz izan ditu: batetik, iruzurraren aurkako borroka indartzea; eta bestetik, herritarrei informazioa ematea, sentiberago izan daitezen. Ideia nagusi batez: tolerantziarik eza. Lan horri esker, iruzur poltsa handiak atzeman dira.

Nire ustez, esan dudan guztia, Gipuzkoan gertatzen ari diren aurrerapenen adierazgarri on bat da.

Beraz, legealdi honetan zehar, asko aurreratu dugu politika publikoen kudeaketa mailan; eta uste dut barneratu dugula Gipuzkoa lan-talde bat dela. Baina ez nuke autokonplazentziarik nahi, ezta inola ere. Gauza asko baitaude egiteko oraindik.

Jabetzen naiz, badakit ez garela behar beste mintzatu eragile edo solaskide sozial jakin batzuekin; badakit, ondo jakin ere, badirela beste egoera laboral bat merezi duten kolektibo batzuk. Jabetzen naiz, badakit, azpiegitura jakin batzuetan ere gehiago aurreratu genezakeela.

Ez ditut gabeziak ezkutatu nahi. Halakoak ere azaleratzeko eta mahai gainean jartzeko garaia da hau. Inportantea baita huts egiteetatik ikastea; ezinbestekoa da etorkizunari autokritikatik heltzea.

Euskadin eta Gipuzkoan itxaropen aro bat bizi dugu. Urte askoan jasan behar izan ditu gure Herriak terrorismoa eta estortsioa. Baina gaur beste agertoki batean gaude: urte hauetan guztietan euskal gizarteak ETari agertu dion gaitzespen tinko eta argiari esker; eta Ezker Abertzaleak berak bere jarrera eraldatu duelako, bide demokratikoak bakarrik erabiltzearen aldeko hautua egin duelako eta indarkeriari legitimatzeari uko egin diolako.

Ez dugu utzi behar aukera hau alperrik galtzen. Nahikoa sufritu dugu gure herrian. Ahal dugun guztia, gure eskutan dagoen guztia jarri beharra daukagu bakea betiko lortzeko.

Ezker Abertzaleak bere hautu demokratikoa burura eramán ahal dezan, funtsezkoa da bizitza demokratikoan normaltasunez parte hartzeko aukera izatea.

Bakeak gure herrira normalizazio politikoa ekartzeko egokiera emango digu. Gure aspirazio kolektiboak inolako distortsiorik gabe gauzatzeko aukera emango digu.

Bakeak eta adiskidetzeak ahalegin eta esfortzu demokratiko guztiak bateratzeko oinarria emango baitigute, gure herriaren erabakitzeko eskubidea gureganatzeko.

Lau urte hauetan zehar, epe labur eta ertainera gure buruari jarritako helburuak betetzen aritu gara buru-belarri. Baina ez horretan bakarrik: etorkizunari buruzko gogoeta sakona egin dugu baita ere. Ez naiz ari 20 urterako estrategiez. Ari naiz gure lurraldeak eta, horrenbestez, Gipuzkoako Foru Aldundiak datorren legealdirako dituen erronka nagusiez. Horietaz ari naiz.

Laster udal eta foru hauteskundeak izango ditugu. Baina ziur nago gaur, Gipuzkoako gizartean, badagoela halako kontsensu zabal bat; ziur naiz gehienok bat gatozela definitzeko garaian zein diren gure lurraldearen garapenerako aurrena ditugun oinarrizko erronkak, zein diren gure gizartearen ongizaterako aurrean ditugun dema nagusiak. Erronkak hor daude; hauteskundeetan emaitza bat edo beste izan, hor egongo dira gero ere.

Gipuzkoa gobernatzen izan dugun esperientzian oinarrituta, eta aldi honetan etengabe gizarte eragileekin solasean arituta, esan genezake 7 erronka nagusi dituela Gipuzkoak datorren legealdirako. Eta erronka horiek Gipuzkoako Foru Aldundiaren egitura egokitzea eskatuko dute.

Aipatzera noa, labur-labur, sei erronka nagusi horiek:

1. Lehenbiziko erronka da jauzi kualitatibo bat ematea gure lurralde enpresen lehiakortasunean, kalitatezko enpleguari eusteko. Horretarako, beharrezkoa dugu berrikuntza programak indartzea, bai teknologiaren bai kudeaketaren esparruko berrikuntza areagotzekoa. Beharrezkoa da erabat laguntzea gure enpresen internazionalizazioa, eta beharrezkoa da, baita ere, unibertsitateen eta zentro teknologikoen zerbitzu estrategia indartsuago bat garatzea enpresen alde. Eta inbertitu beharra daukagu, baita, azaleratzen ari diren sektoreetan enpresa berriak sortzeko. Hori dena aurrera eramateko, Gipuzkoako Foru Aldundiak departamentu berri bat egituratu beharra dauka sustapen ekonomikorako eta enpresei laguntzeko. Programa gutxi sortu behar dira, arintasunez kudeatu behar dira eta baliabide gehiago jarri behar dira enpresei laguntzeko eta enplegua sortzeko. Hauxe dateke, Foru Aldundiaren helburuetan, helburu nagusia.

2. Bigarren erronka da bermatzea Gipuzkoako babes sozialeko sistemaren finantzaera. Kudeaketa optimizatu beharra daukagu eta, batik bat, erakunde guztien artean adostasun batera iritsi beharra daukagu, foru aldundiek gizarte politikaren arloan dituzten eskumenak betetzeko baliabideak berbanatu ahal izateko. Erreforma fiskala egin beharra daukagu politika sozialen iraunkortasunerako sistema eta eskema behin betiko finkatu eta ixteko.

3. Hirugarren erronka da ikus-entzunezkoen kluster handi bat sortzea Gipuzkoan, Tabakalera egitasmoaren inguruan kultur edukiak sortzeko espazio sendo-sendo bat ahalbidetzeko. Tabakalerak ezin du izan zentro isolatu edo bakartu bat. Gure herriko kultur sorkuntzaren izeberg-muturra izan beharko luke. Eta horretarako, asmatu behar du uztartzen sorkuntza, ikus-entzunezkoen industria eta kultur kontsumoa. Tabakalera ardatz hartuta, asmatu behar dugu kultur industria lehiakorraren sare zabal bat sortzen merkatuan.

4. Laugarren erronka da lurraldeko komunikabide-azpiegitura handiak burutzea eta mugikortasunerako sistema bakar bat ezarri eta hedatzea, garraio publikoaren erabilera sustatzeko eta orokortzeko. Abiadura Handi Trena amaitu behar da, Gipuzkoako errepideen "errotonda" burutu behar da, azpiegitura hauen denen kudeaketa eredu egoki bat finkatu behar da eta garraio-bide desberdinak elkarrekin eraginkortasunez integratu behar dira.

5. Bosgarren erronka da energiaren aurrezkian eta garapenaren iraunkortasunean aurrerapauso kualitatibo bat ematea. Horretarako beharrezkoa da hondakinen kudeaketan jauzi kualitatiboa ematea, uraren kudeaketa sistema aurreratu bat osatzea eta energia sortzeko sistema alternatiboak bultzatzea. Hori dena gidatzeko eta bermatzeko, EKO-GIPUZKOA fundazioa sortzea proposatuko dugu: EKO-GIPUZKOAN erakunde publikoak eta pribatuak egongo dira, Lurraldearen iraunkortasuna sendotzeko esfortzu partekatua egin ahal izateko.

6. Seigarren erronka, berriz, lurralde oreka da. Beharrezkoa da LANDA GIPIZKOA programa zabaltzea 2.500 biztanletik beherako herri guztietara, modernizazio ahalegin berezi bat egiteko hiru esparruetan: kultur azpiegituretan, gizarte zerbitzuetan eta azpiegitura teknologikoetan. Aurre egiten sendo jarraitu behar dugu, lurralde orekaren kontzeptua zainduz ea lehenetsiz.

7. Azkenik, lurraldeko gobernantza eredua aldatu behar da. Gobernantza eredu honek aukera eman behar digu hiru eraldaketa nagusi burutzeko: gizartea bera internazionalizatzea, berrikuntza soziala pertsonen eta erakundeen balioetan oinarrituta, eta herritarren partaidetza egonkorra administrazioan.

Hauxe da etorkizunari begira egiten dugun gogoetaren laburpena. Gertuko etorkizunari begira, aurrean ditugun erronkei nire ustez nola heldu behar diegun partekatu nahi izan dut zuekin guztiokin.

Baina eduki dezagun garbi guztiok: Gipuzkoaren etorkizuna ez du alderdi politiko bakar batek hezurramituko. Ezta erakunde bakar batek ere. Aurrean ditugun erronkak, behartu egiten gaituzte denok lidergo partekatua lantzera eta indartzera, etengabe eta irmoki ikuspegi horrekin jokatzera. Gipuzkoak izan dezakeen etorkizun onena, talde-lanetik bakarrik sortuko baita.

Eskerrik asko.